

GERRAREN BALANTZEA ETA ARRASTOAK.

SARRERA

Gerra zibila amaitu eta gero Espainia era bat suntsituta zegoen, demografikoki, sozialki eta ekonomikoki. Amaierarekin ez zen bakea iritsi, Frankok aurreko errepublikako arrasto guztiak ezabatzeari ekin zioen eta. 1939-1948. urteetan zehar ordura arte sekulan ez gertatutako errepresio gogorra burutu zen. Garai honi frankismoa deritzogu, diktadura izaera pertsonalista duelako eta izaera ideologiko argi eta homogeneorik ez duelako.

Frankoren ideologia tradizionalista katolikoan eta diziplina militarrean oinarrituko da. Erregimenarekin bat egin zuten famili politiko ezberdinak, garaien arabera, beraien ideologiak indarrean ipiniko dituzte. Erregimenaren ezaugarri nabariena, garai ezberdinetan ematen ziren ezaugarri edo egoeretara egokitzea izango da, famili politiko ezberdinen artean boterea banatzen duelarik. Guzti hau helburu jakin batekin, botere guztia bereganatzea eta denboran zehar irautea, guzti hori Frankok lortu zuelarik.

BALANTZEA ETA GERRAREN ARRASTOAK. GERRAREN ONDORIOAK

DEMOGRAFIKOAK	EKONOMIKOAK	POLITIKOAK
Hildakoen kopurua, azken kalkulua eta zenbaketen arabera 250.000 ingurukoa da. Hauei elikagai urria eta eritasunez hildakoak gehitzean, gehi erbesteratuak eta gerrarengatik ez jaiok; kopurua milioira hurbiltzen da. Gainera kontutan izan behar da kopuru horretatik gehiengoa giza talde gazte eta aktiboenetan eman zirela.	Nekazaritzan eta abelazkuntzan galerak itzelak izan ziren, ekoizpena aunitz jaitsiz, lan esku falta, abere eta ongarrrien urritasuna eta ekipo ondasunen gabeziagatik. Guzti honi nazioarteko isolamendua gehitu behar zaio, ondorio bezala herriaren miseria, pobrezia eta urritasuna nabaritu ziren 40. hamarkadan. Industria guneak erabat suntsituta edo hondatuak geratu ziren, garraio sistema eta komunikazioak bezala. Beste aldetik dibisak falta ziren, nazionalen guda gastuei aurre egiteko eta errepublikarrek batez ere Errusiari ordaintzeko erabilitako urre erreserbengatik. Laburtuz erran daiteke errenta nazionala jaitsi zela 1914. urteko mailara, 1959. urte arte guda aurreko maila ez zen berreskuratuta. Gerraren ondorioz Espainiaren ekonomia hondoratuta zegoen. Bi bandoen gastua 1995. urtera eguneratuz. 6 biloi pezetaren ingurukoa izan zelarik.	Gerraren ondoren hauteskunde bidez eraturiko gobernu demokratiko bat, diktadura batez ordezkaturia izan zen. Zenbait historiagileek dioten arabera, adibidez Ramón Tamames 40 urte pasatu behar izan dira, bertze testuinguru batean, garai haietako memoria historikoa berreskuratuzeko parada izateko.

GERRAREN ARRASTOA. Garaipena iristen denean.

1936. urtean aldarrikaturiko gerra egoera ez da 1949. urtera arte altxatuko. Errepresioak hiru forma ezberdin izan zituen: exekuzioak, kartzelaratzek eta garbiketak. Kalkulatu da 30.000 pertsona inguru hil zituzten «indarrean zeuden legeak» aplikatuz. Kartzelaratzek oso ugariak eta maiz ematen ziren, badirudi preso politikoen zenbakia 300.000 ingurukoa izan zela. Hauetariko askok espetxeetan eta bertze aunitz berrerosi edo luditsu zituzten beraien zigorrak Colonias Penitenciarias Militarizadas deritzonetan (batalloi disziplinarioak), hots, errepideak edo Behe Guadalkibirreko ubidea edo Valle de los Caídos eraikitzen aritu zirelarik. Garbiketak funtzionarioen artean eman ziren bereziki, milaka maisu, irakasle, katedratiko, posta zerbitzuko langile, diplomazia eta osasuneko funtzionarioak kaleratuak izan ziren, gobernu berriak lanpostuen % 80 bere alde borrokatu edo Mugimendu Nazionalarenkin lankidetzan izan zutenen esku utzi zituelarik.

Guzti honi exilioa edo erbesterapenak gehitu behar zaio, bai barrukoa bai atzerrikoa. Barrukoan maquis eta «satorrak». Aurrenekoak gerrillari errepublikarra ziren, mendian barna ezkutatuak eta gerra galdutzat ematen ez dutenak dira, nazioarteko potentziek Espainian demokrazia berrezarriko zuelakoaren zain. Hasiara batean herritarren artean arretoa ona bazuten ere, ondorengo errepresioa eta egoeraren makurtzerekin, laguntzak galduko dituzte. Satorrak ordez, errepresioaz babesteko beren etxeetan ezkutaturiko pertsonak izan ziren horietariko batzuk hogeita hamar urte ere etxetik irten gabe egon zirelarik.